

2025eko ekainaren 11n

EUSKARA KONTSEILUA

PRESIDENTEA

Paule Sanchez (EAJ-PNV)

BATZARKIDEAK

Mireia Elkoroiribe (alkatea)

Ane Abanzabalegi (EH-BILDU)

Carlos Garcia (PP)

Idoia Marin (Kurutziaga)

Nerea Barrenetxea (San Antonio ikastetxea)

Nerea Narbaiza (San Antonio ikastetxea)

Iñigo (Ibaizabal eskubaloit taldea)

Mikel Eguia (Durangoko Kulturala)

Joseba Bikandi (Durango Kirol Taldea)

Joseba Derteano (Anboto komunikabideak)

Beñat Gaztelurrutia (Gerediaga elkarteak)

Pello Zabarte (Berbaro elkarteak)

Garbiñe Andrinua (Udal Euskaltegia)

Iruri Altzerreka (udaleko euskara dinamizatzailea)

Alazne Arando (udaleko euskara trebatzailea)

IDAZKARIA – Alazne Arando (udaleko euskara trebatzailea)

Tokia:	Durangoko Udal Euskaltegia
Izaera:	Ohikoa
Hasiera ordua:	18:30
Amaiera ordua:	20:00

Irurik hasiera eman dio ikasturteko azken Kontseiluari eta Kontseiluko presidentek hitza hartu du bertaratuei eskerrak eman eta lanketetan jarraitzera animatzeko. Ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntu hauek aztertuta dira:

1. BAT.-AURREIKUSITAKO EKINTZAK.

Irurik esan du azken euskara kontseiluan AROA planeko ekintzen lehentasunak markatu genituela, eta gaurkoan proposamen zehatzetan oinarritzea dela asmoa. Euskara sailetik udazkeneko egingarri ikusten ditugun ekintzak azaldu eta gero taldeka horien gaineko ekarpenak egiteko aukera egongo da. Amaieran, taldeetan esandakoa elkarbanatuko da.

Paper bana banatu die bertaratuei AROA planaren hurrengo hilabeteetarako gidalerroekin (ikus i. Eranskina). Bertan banatuta daude identifikatu genituen arloak eta bakoitzerako ekintza zehatzak.

1. Merkataritza: Euskara saila Dendak Bai-koekin batu da eta merkatarientzat inkesta bat prestatu du. Inkesta hau merkataridendariei pasako zaie, eta bertan, alde batetik, beraien profila zehazteko estatistika galderak (generoa, adina...) eta gero Udaleko Euskara Saileko zerbitzuen ezagutzaren inguruko galderak egingo zaizkie (errotuluak euskaratzeko dirulaguntzak, Euskaraldiko parte-hartzea, euskaraz ikasteko dohaineko ikastaroak). Jasotako emaitzekin beraien beharrak zeintzuk diren ikusi eta gure esku-hartzea horietara egokitu nahi dugu.

- Arlo honetan, hasteko, euskararen telefonoa daukagu. **Irurik** esku-orri eta iruditegi berria erakutsi ditu. Komunikazio zabalkundea egin eta iruditegi berria sozializatu beharra dagoela uste dugu eta galderetan honen berri duten galdetuko zaie.
- Euskaraz barra-barra: pegatina erakutsi du. Inkestaren bidez jakingo dugu honen berri dakiten ala ez. Kanpaina berri bat egitea aurreikusten dugu establezimendu gehiago atxiki daitezen.
- Bestelako neurri batzuk aurreikusten dira. Esaterako, euskara ikasteko ikastaroren bat antolatzea, merkataridendariei eta ostalariei ordutegi eta beharretara egokituta.

Beñatek galdetu du ea inkesta noiz pasako den eta **Irurik** erantzun dio laster pasako zaiela, ekainean bertan. Udan emaitzak aztertuko dira, udazkenean lanketa egin ahal izateko. Dendak Bai-k dituen kontaktuei pasatuko zaie.

Mireiak galdetu du ea ostalariei ere bidaliko zaien eta **Irurik** esan du baietz, bai merkataridendariei, bai ostalariei helaraziko zaiela.

2. Etorkinak:

- Harrera protokoloa: Euskara saila Immigrazio teknikariarekin batu da eta badirudi momentuz ez dagoela baliabide nahikorik horrelakorik garatzeko, baina udazkenean panfleto gisako zerbait prestatzea aurreikusten dute etorkinei euskararen inguruko zerbitzu, dirulaguntza eta bestelako informazioa emateko.
- AISA ikasi dutenentzako dirulaguntza: AISA ikastaroa egin dutenentzako dirulaguntza ateratzea planteatzen da, A1 maila dohainik ikas dezaten. Orain lanetan gabiltza Udaleko Sailekin, juridikoki zein ekonomikoki aurrera nola atera ikusteko.

3. Kirola: Lehentasun oso garrantzitsutzat daukagu eta sakoneko lanketa baten beharra ikusten dugu. Epe luzerako lanketa aurreikusten dugu klubetako figura desberdinekin, lanketa globala izango dena. Hau egiteko kanpoko baliabideak

beharko lirateke eta udazkenerako bideragarria ez den arren, honen lanketa beharrezkoa dela uste dugu. Ikastaro edo hitzaldiren bat egitea aurreikusten dugu epe motzean, udazkenera begira.

4. Euskararen eguna: ikusgarritasun gehiago eman behar zaio eta herrira begirako zerbait zabalagoa egitea aurreikusten dugu. Eta irakurketa instituzionalaz gain, herrian bestelako ekitaldi kulturalen bat egitea nahi da.
5. Hizkuntza neurketa: euskararen kale erabilera neurtzeko. Azkena 2017koa da, eta uste dugu beharrezkoa dela berria egitea, AROA Plan honen indarraldiaren barruan. Soziolinguistika Klusterrarekin harremanetan jarri gara: beraiek egiten dute, elkarrizketa batzuk grabatu eta horien arabera neurtzen dute euskararen erabilera. Durangon hiru eremutan egingo dute. Datorren udazkenean¹ egitea aurreikusten da, eta emaitzak 2027ko udaberrian jasoko genituzke. Datuak dauzkagunean lanketak egin ahalko ditugu.

Ea zalantzarik dagoen galdetu du **Irurik**. Ez denez galderarik egon, taldeka banatu eta ekarpenak egiteko eskatu die bertaratuei. Orri zuriak banatu ditu bertan idazteko. 3ko 4 taldetan banatu ditu bertaratutakoak. Esandakoen gainean zerbait gehiago gehitu nahi baldin badute, edo aipatutako arloetan bestelako ekarpenik egin, orrietan idazteko adierazi die.

2. BI.- PLENARIOA:

Taldetan esandakoak komunean jarri ditugu, atalka.

1. MERKATARITZA:

Garbiñek esan du ondo dagoela inkesta egitea, baina Dendak Bai-k ostalaritza eta merkataritza hartzen dituela kontuan, baina zerbitzuak ere kontuan hartu beharko liratekeela: baserritarrak, ostalaritza munduko bestelako jendea etab. Beste gune batzuetara hel gaitezke informazio gehiago lortzeko, eta Udala prest dago jende horrengana heltzeko.

Garbiñek bestelako establezimendu batzuk aipatu ditu (fruta dendak, atzazkalak margotzekoak...) eta horiek Dendak Bai-ren barruan dauden galdetu du. Horiengana heltzeko ahalegina egin behar dela adierazi du. Etorkinen protokoloa egingo balitz, informazioa zehatz mehatz adieraziko litzatekeela esan du, eta Euskara Zerbitzuak dituen baliabideen berri eman.

Mikel Eguiak esan du merkataritza eta ostalariek bezeroei egiten dien arreta euskaraz izan beharko litzatekeela. Durangoko Azokaren baitan ekintzaren bat edo beste proposatu daitezke: euskal playlistak dendari eta ostalarientzat... Eta hori ondo badoa, beste data adierazgarri batzuetan antzeko lanketa batzuk egin daitezke.

Beñatek gaineratu du Azokakoa partxe bat dela, lau egun soilik direlako. Euskaraz egiten dakien jendea kontratatzeko aukera ona dela gehitu du eta beraiek prest egongo liratekeela abestien playlistak pasatzeko. Azpimarratu du Dendak Bai-ra heltzeko asmoa dugula, baina horren barruan ez daudela zerbitzu edo talde

¹ Batzarrean bertan kale neurketa 2025eko udazkenean egingo zela esan zuen Irurik, eta emaitzak 2026ko udaberrian jaso. Datekin nahastu zen, eta urtebete gehitu behar zaio esandakoari; hots, neurketa 2026ko udazkenean egingo da, eta emaitzak 2027ko udaberrian jasoko ditugu.

guztiak eta denetara heltzea interesgarria litzatekeela. **Idoiak** aipatu du Alde Zaharreko Tabernen Elkartea badagoela.

Anek esan du Dendak Bai-ren bidez inkesta egitea interesgarria dela, baina hortik kanpo daudenengana ere heldu beharko ginatekeela. Bestalde, komentatu du Euskaraz Barra-barra herrira zabaldu eta sozializatu behar litzatekeela: herriak ba al daki zerbitzu hori dagoela? Herria jakinarazi eta informatu beharko litzateke, kanpainaren baten bidez edo.

Kartelei dagokienez, beherapenetako edo bestelako kartelak Udalak egin ditzakeela esan du, tipologia bateratuarekin (ez komertziala). Zerbait txukunagoa eta interesgarria litzateke, deigarria eta originala.

Irurik gehitu du Dendak Bai-k ere beherapenetako kartela pasatzen diela, baina ez zaiela denei heltzen.

Pellok gauza bera esan du. Beti antzeko jendearengana heltzen gara eta denengana heltzea komeni da. Barra-barraren bidez jendearengana heltzea aipatu du, Euskal Herri osoan hedatuta dagoena delako. Ostalari eta merkatarientzat hiztegi txiki bat zabaltzea interesgarria litzatekeela adierazi du, egunerokotasunean erabiltzen diren betiko esamolde edo hitzekin.

Garbiñek Zarautzeko taberna bateko adibidea ekarri du adibide moduan (ikusi II. Eranskina). **Idoiak** esan du UEMAK ere atera zuela mahai-oihal moduko bat, hainbat hizkuntzatako hiztegi bat.

2. ETORKINAK:

Garbiñek esan du lotuta daudela dendekin. Ondoren eskolen edo hezkuntza mundura salto egin dute. Berbarok antza jokoan bidez ikasteko aukera ematen die 11-12 urtera arte, baina 14-16 urte bitartekoek ere beharrezana dute eta agian komenigarria litzakete eskolekin harremanetan jarri eta zer behar duten galdetzea, euskara akademikoari dagokionez. Euslider proiektua aipatu du, eta berak ezagutzen duela esan du. Elgoibarren, esaterako, martxan jarriko da. Eusliderren bidez pertsona batzuk (liderrak) identifikatu eta hezten dira, euskara sustatu dezaketenak, eskolan xaxatzaile lanak egiteko. Erabilera bultzatzeko helburua du. Kanpotik datorren ume bat gela normal batean sartuz gero, ezin izaten du horren erritmoa jarraitu, hizkuntza dela eta.

Paulek esan du Durangon proiektua aurkeztu bakarrik egin dela, baina oraindik ez dagoela guztiz bideratuta. Onarpenak bere prozesua duela adierazi du, eta diruz onartu behar dela eta ikastetxei aurkeztu. Adin-tarte batera bideratuta dago eta eskolak berak hori lantzeko nahia duen adierazi behar du. Gaia lantzeko esparru egokia jarriko dutela esan du.

Idoiak gehitu du euskaltegietan 16 urtetik aurrerakoek soilik jasotzen dutela formakuntza eta hainbat lekutan hitzarmenak egiten hasi direla euskaltegiekin, 16 urtetik beherakoei laguntza akademikoa emateko.

Pellok esan du Berbarok izaera ludikoaz lantzen duela umeekin euskara. 16 urtetik gora Udal Euskaltegiekin eta AEKekin bermatuta dagoela esan du, baina 12-16 urte bitarteko tartea konplikatuagoa dela. Adin tarte horretan ez du funtzionatzen izaera ludikoa duen esku-hartzeak.

Idoiak gehitu du toki batzuetan euskaltegietako irakasleak joaten direla ikastetxeetara. Izan ere, ikastetxeetatik irten behar badute, absentismoa egoten

da sarritan. Ikastetxeetara bertara irakasleak joanez gero, hori saihestu egiten da, eta eraginkorragoa litzateke.

Garbiñek esan du hezkuntzako ordutegi barruan izan beharko litzatekeela, bestela jendea ez delako animatzen. Osagarri moduan sartuz gero, bestelako lehentasun batzuk dituzte eta ez dira euskarara gerturatzen.

Anek esan du gaztelerako irakurzaletasuna eta (adibidez, Maiztegin: INDARTUZ programa) erabilera sustatzeko programa badagoela, eta horrelako bat baina euskaraz egin daitekeela, gazteei zuzenduta.

Idoia esan du ordu bi astean euskaraz ez dela nahikoa, batez ere 12tik 16ra bitarteko tarte horrentzat.

3. KIROLA:

Mikelek galdetu du ea plan edo azterketarik egingo den eta ea 2026rako edo ahalik eta lasterren egingo den. Umeen lana euskaraz izan dadila bultzatu behar da, beraien artean eta entrenatzaileekin. Horretarako, entrenatzaileak zenbat eta euskaldunagoak izan, hobeto. Kirol elkarteetara kirol horretan euskararen erabilerari dagokionez erreferenteak diren pertsonak eramatea proposatu du, kirol horri bultzada emateko (hitzaldiak, bilerak...). Horrela umeei ikusiko lukete euskaraz ere egin daitekeela kirola.

Beñatek gaineratu du horrelako planak ikusita dituela eta kirol taldeak ito ditzakeela, kontu asko barnebiltzen baititu. Baina zer da benetan interesatzen dena kirol taldeetan? Umeei entrenamenduetan euskaraz egin dezatela. Entrenatzaile eta umeen arteko euskarazko harremana landu beharko litzateke; lorpen handia litzateke. Kirol arloa osorik biratzea zaila ikusten du eta arlo jakin batera (aipatutakora) joango litzateke.

Garbiñek Gernikan gertatzen dena aipatu du. Bertan, nahiz eta entrenatzaileak euskaldunak izan, entrenamenduak erdaraz egiten dituzte askotan. Entrenatzaile bakarra ezagutzen du euskaraz egiten duena, beragandik irteten delako. Futbol entrenamendu baterako gogoia da behar dena, eta ez euskara maila ona izatea. Instrukzioak ematen dituzte batez ere, eta hori A1 mailan irakasten da. Gogoia behar da eta kontzientzia edo euskararekiko sentsibilizazioa izatea.

Beñatek esan du badaudela entrenatzaileentzako formakuntzak.

Idoia gauza bera esan du eta sentsibilizazioa falta dela. Batez ere gazteak izan ohi dira entrenatzaileak (hizkuntza hautua egiteke edo egiten ari direnak) eta beraiei zuzendutako formakuntzak egin daitezke urtero, gai honetan trebatu eta kontzientzia hartzeko. Multa asko dago oro har entrenamenduetan, beraz, euskara nolabait saritu daiteke, premiatzearen.

Pellok esan du sakoneko lanketak egin beharko liratekeela. Gaineratu du erreferenteak direla klabeak eta lanketa puntualak diren heinean, interesa piztu behar duela eta interesgarria litzatekeela erreferenteak izatea, ez derrigor kirolaren arlokoak.

4. EUSKARAREN EGUNA:

Paulek esan du aurreko urtean egin genuen euskararen egunean, ez instituzionalizatzeko deia egin zela eta kirolean zentratu ginela. Aurtengoari begira ikusgarritasuna eman eta herrira zabaltzeko proposamena egin behar dugula dio.

Anek esan du merkatarietan (zerbitzuetan) jarriko denez fokoa zati handi baten, agian euskararen eguneko indarra beraiei ematea egokia litzatekeela eta beraiekin aliatu moduan lanketa egitea, gero 365 egunera zabaltzeko.

Paulek esan du horren inguruko galderaren bat pasako zaiela inkestaren bidez: ea interesa duten, eta zer nolakoa. Lanketa horren arabera bideratuko da.

Idoiak instituzionalizazioa zeri esaten diogun galdetu du, eta **Paulek** esan du, orain arte "betiko" adierazpenak irakurri eta zerbait formalagoa egin izan dela, eta azken urtean horri buelta bat eman nahi izan zitzaiola (kirolean hiztegia, argazkiak, lanketak ...).

Pellok esan du izaera herritarra eman behar zaiola egunari eta horrelako ekintza nagusi bat egotea ondo dagoela eta beste ekintza batzuk euskaraz egitea ere interesgarria litzatekeela (esaterako nagusien etxeko bingoa).

5. **KALE NEURKETA:** Denak ados daude komenigarria dela neurketa berria egin eta datu berriak jasotzea, ikusteko ea onera edo txarrera goazen, eta non jarri behar den fokoa.

Beñatek galdetu du ea neurketa udazkenean eginda zergatik ez dugun daturik udaberrira arte. **Irurik** erantzun dio lanketa sakona eta azalekoa egiteko aukera dagoela, eta guk sakonekoa egingo dugunez, horiek direla Klusterrak markatutako denborak, datuak jaso eta interpretatu beharko dituztelako.

Pellok esan du interesgarria izango dela eta oihartzuna izaten duen zerbait dela, eta aproposa izango dela sentsibilizaziorako, datuak aurkezteko unean.

Anek esan du normalizazioko bidean aurrerapausoa dela: ezagutzak gora, baina erabilerak bera egingo duela aurreikusten du.

3. HIRU.-HURRENGO KONTSEILUA.

Irurik esan du hurrengo Kontseilua datorren ikasturtean izango dela, urri edo azaro aldean. Aurrerago abisatuko du gai ordena eta eguna abisatzeko.

4. LAU.- GALDE-ESKEAK.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, euskara kontseiluaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut.

I.Eranskina

AROA PLANA Hurrengo hilabeteetarako gidalerroa

Hileetako lanaren ondoren, iazko azaroan AROA Plana onartu zen Udalean. Behin onartuta, hura gainbegiratzeko eta bilakaera kontrolatzeko saioak egitea dagokigu, baita bertan ezarritako ekimenak garatzea ere, paper hutsean gera ez daitezten.

Azken hau Euskara Kontseiluetan nabarmendu den ideia da. Aurreko Kontseiluetan argi geratu dira zeintzuk diren kezka eta lehentasun nagusiak. Horregatik, orain Kontseiluan proposamen zehatzak lantzea dagokigu, 2025eko bigarren seihilekoan aurrera eraman ditzagun. Hona hemen puntuz puntu:

1. Merkataritza:

- Merkataritzan eta ostalaritzan kanpaina berria sustatu:
 - Barra-barra zabaltzeko difusio kanpaina martxan jarri, establezimendu gehiagok izena eman dezaten.
 - Euskararen telefonoaren irudi berria plazaratu eta herritar eta langileen artean sozializatu.
 - Merkatariei inkesta pasatu, beraien beharren berri izateko.
 - Merkataritza eta ostalariekin informazio saioak egin: dekalogoak birgogorazi, barra-barra eta telefonoaren berri eman, euskara ikastaroak planteatu...

2. Etorkinak:

- Harrera protokoloa: etorkinei arreta integrala eman ahal izateko eskura dituzten zerbitzu guztien berri ematea garrantzitsua da. Euskara ere hor kokatzen da. Immigrazio sailarekin elkarlanena harrera protokoloa garatu.
- 2026rako dirulaguntza atara: Aissa ikastaroa egin duten etorkinek udal euskaltegian hurrengo maila dohainik izan dezaten beka.

3. Kirola:

Sakoneko lanketa bat egiteko programa baten kontratazioa beharrezkoa da, horrek bermatzen baititu gisa honetako lanketa bat egin ahal izateko baliabideak, giza baliabideak zein materialak. Horrek, inbertsio ekonomikoa ere badakar, eta, beraz, hurrengo urteetara begira errealagoa da 2025ean baino.

Kirola euskalduntzeko garatu daitekeen programa baten ardatza euskara da. Era berean, lankidetzan joan behar da hezkuntza, gazteria eta bestelako sail batzuekin. Finantzazioari dagokionez, hainbatetan sail horien guztien artean egin ohi da, lanketa transbertsal hau aurrera eramanez ahal izateko.

Gisa honetako programen ezaugarriak hurrengoak izan ohi dira:

- Bideratzaile edo dinamizatzaile bat arduratzen da. Euskara zerbitzuko langileen koordinazioarekin.
- Kirol komunitateko agente ezberdinak hartzen ditu aintzat: jokalaria, klubak, gurasoak eta entrenatzaileak, oro har. Guztietatik eragiten da.
- Askotariko planteamenduak uztartzen ditu: trebakuntza saioak, solasaldiak, ikus-entzunezkoen produkzioa, euskarazko baliabideak eskaintzea (hiztegiak, entrenamenduak, jokoak...)
- Esku-hartzea urtebetekoa izan ohi da gutxienez, eta eragina handitu egiten da denboran luzatu ahala.

Epe ertainera berriz (hots, 2025eko udazkena) lanketa xumeagoa egitea aurreikusten dugu: solasaldi bat erreferenteekin, trebakuntza saio zehatz bat klub, guraso edo bestelako agenteei begira...

Horrez gain, epe luzera programaren bat aurrera eramatea aztertzen gabilta.

4. Euskararen eguna:

Euskararen egunari presentzia handiagoa eman behar litzaioke, eta herrira zabaltzeko: Durango mailako egitasmoa egin, denen eskura. Planteamendua:

- Goiza: ekimenen bat egin herria girotzeko.
- Arratsalde: ohiko irakurraldi instituzionala eta ekintza kulturala (kontzertua, hitzaldia, antzerkia, bertso saioa...)
- Bestelakorik?

5. Hizkuntza neurketak:

Durangok 2017tik ez du hizkuntza neurketarik egin. Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza neurketa hauek oso eraginkorrak direla defendatzen du: batetik, etengabe diagnostiko gaurkotua izan eta horren arabera jokatzeko; eta, bestetik, euskararen normalkuntza prozesuan aldagai determinantea den kale-erabilerarekiko sentsibilizazio lan eraginkorra bihurtzen delako. Beraz, AROA plan honen denbora tartean (2025-2028) hizkuntza neurketa hauek egitea egokia izango da.

Zentzu horretan, Klusterrarekin harremanetan jarri gara, metodologiaren berri izan eta informatzeko.

II. Eranskina

Gure hizkuntza eta kultura zaintzea lehentasun bat da zarautztarrentzat.

Kanpaina honen bidez, elkarrekin eta elkarri lagunduz egin nahi dugu euskararen erabilera aurrera. Hasteko, goxoa eta erraza iruditu zaigu ariketa kafearen bueltan egitea.

Herritarrok euskaraz eta irribarre batekin eskatuko dizugu kafea. Animatuko al zara zu ere kafea euskaraz zerbitzatzera?

Ez dago euskaraz ondo hitz egin beharrik erabiltzen hasteko.

Zapore ona utziko digu aho eta ezpainetan...

En Zarautz es una prioridad preservar nuestra lengua y cultura.

Con esta campaña os queremos animar a dar pequeños pasos en el uso del euskera, ya que no hace falta dominar el idioma para comenzar a utilizarlo.

¿Y por qué no empezar de manera sencilla? ¡Con un café! Te pediremos el café en euskera y con una sonrisa. ¿Te atreves a servirlo en euskera?

¡Seguro que nos deja un buen sabor de boca!

ESKATU ETA ZERBITZATU KAFEA EUSKARAZ!

SHIRIV, ERRAZA DA, EZ DAGO EUSKARAZ ONDO JAKIN BEHARRIK, ZERBITZTEN HASTEKO!

IMAJINATU! NO DACE FALTA DOMINAR EL EUSKERA PARA EMPEZAR A HABLARLO.




Kafe hutsa
Solo



Ebakia / Kortatua
Cortado



Kafesnea
Café con leche



Deskafeinatua, sobreakoa
Descafeinado de sobre

Kafe gutxiarekin	Con poco café	Kamamila	Manzanilla	Beroa	Caliente	Kaixo!	¡Hola!
Azukrearekin	Con azúcar	Te gorria	Té rojo	Epela	Templado	Egun on!	¡Buenos días!
Azukre gabe	Sin azúcar	Te berdea	Té verde	Hotza	Frio	Arratsalde on!	¡Buenas tardes!
Sobreakoa	De sobre	Esnea	Leche	Izotzarekin	Con hielo	Gabon!	¡Buenas noches!
Makinakoa	De máquina	Edalontzian	En vaso	Txikia	Pequeño	Zenbat da?	¿Cuánto es?
Baso bat ur	Un vaso de agua	Katiluan	En taza	Handia	Grande	Euro bat eta berrogeita hamar	1.50 €
						Euro bat eta hirurogeita hamar	1.70 €

Bat 1	Hamar 10	Laurogei 80
Bi 2	Hegai 20	Laurogeita hamar 90
Hiru 3	Hogeita hamar 30	Ehun 100
Lau 4	Berrogei 40	Euro bat 1 €
Kafe hutsa bat	Un café solo	Berrogeita hamar 50
[Bi/Hiru/Lau]	[Dos/Tres/Cuatro]	Hirurogei 60
kafe hutsa	café solo	Hirurogeita hamar 70
		Xentimo Céntimo